



# Euskal Hezkuntza Sistema Sistema Educativo Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION





# Agurra

“oasi bila dabilen tanta bat naiz,  
itsaso zabalean”

*Andolin Eguzkitza*

**A**niztasunaren aldeko apustua egitea gaur egun Euskadin bizi garen guzti-guztion aldeko apustua egitea da. Euskadin pauso ausartak eta tinkoak ematen ari gara oasi bat ezkutatzen duen basamortu horretan zehar. Geure kulturaren eta hizkuntzan (euskaran) sustraitutako hezkuntza politika dugu oinarri, eta politika horrek gaztelania eta beste hainbat hizkuntza barne hartzen ditu, horrela zabalduko baitugu Euskadi mundura. Gure historiatik, ohituretatik... abiatzen gara. Erronka nagusia gure nortasuna beste nortasun batzuekin uztartzea da.

Nork bere burua ondo ezagutzeko eta etengabe besteekin harremanetan jartzen saiatzeko helburuz, gurasoekin eta ikasleekin hitz egiteko beharra sortu zaigu. Horrela, horien gustuko ereduak eta ikastetxea hautatzen lagundu nahi diegu, euskara eta gaztelania hobeto ikas dezaten, baita beste hainbat ikasgai ere. Hezkuntza Sailaren bidez, Eusko Jaurlaritzak kalitatearen, berrikuntzaren eta ikaskuntza iraunkorraren aldeko apustua egin du. Horretarako, zuzentasunean, elkartasunean, kulturarteko elkarrizketan, komunikazioan eta elkarri etengabe entzuteko gaitasunean oinarritzen da. Kultura bakoitzak izugarritzko aberastasunak ditu, eta horiek, baliokideak izateaz gain, desberdinak ere badira. Kulturarteko elkarrizketak eskaintzen duen gauzarik ederrena hau da: guztiok gauza berdinak ditugula ulertzeaz gain, elkarren arteko desberdintasunak liluragarriak direla ere ulertuko dugula, hain zuzen.

Ohiturak eta kulturak ezin dira harresien artean edo kutxetan sartuta egon, nahiz eta horiek beirazkoak izan. Kulturek bere horretan jarraitzeko, alderatu egin behar dira, leihoak zabaltu, kultura horiek elkarbanatu, eta elkarren artean jarri, errespetuz. Horrela, besteek ere kultura horiek ezagutzeko eta horietaz gozatzeko aukera izango dute.

Anjeles Iztueta Azkue  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua



4caYO O

2CabSZZ\]

4\UZaW

5 O z OaW

?] `bcUc} a

**Русский**

A] [ x\

اللغة العربية

中文



## Euskadiko Hezkuntza Sistemaren ezaugarriak

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua haurren garapen pertsonalari laguntzea da, haurrak aukera izan dezan bizi den gizarteko herritarra izateko.

Hezkuntza, beraz, funtsezkoa da gizabanakoaren integrazioa eta autonomia lortzeko.

Gure hezkuntza sistemak bermatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren haur guztiek hezkuntza izateko eskubidea dutela, baita bizi diren auzoan edo herrian ikaspostu bat izateko eskubidea ere, eta, leku horietan eskolarik ez badago, hurbilen dagoen ikastetxean.

Eskolatzea doakoa eta derrigorrezkoa da 6 urtetik 16 urte bitarteko haurrentzat, eta etapa hauek ditu:

Haur hezkuntza (HH)	3tik 6 urtetara
Lehen hezkuntza (LMH)	6tik 12 urtetara
Bigarren hezkuntza (DBH)	12tik 16 urtetara

Ikasgeletan neskak eta mutilak elkarrekin daude.






# a Erkidegoko hezkuntza sistemari buruz

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan irakaskuntza bi ikaskuntza hizkuntzen bidez ematen da: **euskararen eta gaztelaniaren bidez**. Biak dira Euskal Autonomia Erkidegoko **hizkuntza ofizialak**

3 ikasteredu daude:

### Datu orientagarria:

2003/2004 ikasturtean matrikulatutako 3 urteko haurren %61,4 D ereduan matrikulatu ziren, %30,5 B ereduan eta %8,1 A ereduan



Hiru ereduetan, gainera, ingelesa irakasten da lau urtetik aurrera.


Matrikula egiteko ohiko epean (otsaila), familiek aukeratzen dute beren haurrentzako ikastetxea eta irakasteredua.



# Euskal Hezkuntza Sistemaren Organigrama

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzen duten ikasleek “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatu” titulua eskuratu dute, eta horrek aukera ematen die batxilergoa edo erdi mailako heziketa zikloak ikasteko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzen ez duten pertsonak “Ikasketa ziurtagiria” eskuratu dute, eta horrek aukera ematen die Lanbide Hastapenerako Programak ikasteko



12-16 urte	2. Zikloa 1. Zikloa	Derrigorrezko bigarren hezkuntza DBH (doakoa)	Bigarren hezkuntzako ikastetxea
6-12 urte	3. Zikloa 2. Zikloa 1. Zikloa	Lehen hezkuntza MH (doakoa)	Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea
3-6 urte	Haur hezkuntza (doakoa)	Haur hezkuntza HH	Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea
0-3 urte	Eskolaurrea (subentzionatua)		Haur eskola
ADINA	ZIKLOA	ETAPA	IKASTETXEA



# Ikasleen matrikulazioa

Ikasleak, ikastetxeetara joan ahal izateko, alde zuzenetik matrikulatu behar dira.

## Matrikulatzeari buruzko informazioa

Familiak beren bizilekutik gertuen dagoen ikastetxera joan daitezke, ikastetxe guztiek baitute matrikulatzeari buruzko informazioa.

Gainera, Lurralde Historiko bakoitzeko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan eskura daitezke matrikulei buruzko informazioa.

### Araba

San Prudentzio 18 behea. 01005 GASTEIZ  
Telefono zk.: 945 01 72 00

### Gipuzkoa

Andia 13 200004 DONOSTIA  
Telefono zk.: 943 02 28 50

### Bizkaia

Kale Nagusia 85 48001 BILBO  
Telefono zk.: 944 03 10 00

## Matrikulatzeko prozesua

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen matrikulazioa otsailean egin ohi da. Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, 16-18 urte bitartekoan, apirilean egin da.

Matrikula egiteko egunak ikastetxeetako eta Hezkuntzako Ordezkaritzetako iragarki tauletan jakinarazten dira.

Matrikula ikastetxean bertan egin da. Han eskura daitezkeen inprimaki batean, matrikulatu behar den ikaslearen oinarriko datuak adierazi behar dira. Datu horiek isilpekoak dira.

Inprimaki horretaz gain, ikastetxe bakoitzak zenbait dokumentu eskatzen ditu. Inor ez da ikasposturik gabe gelditzen dokumentu horiek ez baditu.

Matrikula epea amaitu ondoren, ikastetxean onartutakoen behin-behineko zerrenda jakinarazten da. Haurra zerrendan badago, matrikulatuta dago. Nahikoa ikaspostu ez dagoela-eta onartutakoen zerrendan ez badago, erreklamazio bat egin daitezke.

Matrikula egiteko epetik kanpo heltzen diren haurrek –otsailetik aurrera– ikastetxeetan eta Hezkuntza Ordezkaritzetan egin ditzakete matrikulak.

Hezkuntza Ordezkaritzetan familiaren eskaera berraztertzen da, eta, eskatu diren ikastetxeen ikaspostu librean arabera, haurrak zer ikastetxetara joan behar duen esaten zaio familiari.



## Egutegia

Ikasturtea irailean hasi eta ekainean amaitzen da.  
Hiru oporraldi daude:

**Gabonak:** abenduan

**Aste Santua:** martxoan edo apirilean

**Uda:** ekainaren amaieratik irailaren hasierara

Horrez gainera, jai zehatz batzuk ere badaude, ikastetxe bakoitzaren lan egutegiaren arabera..

Lehen Hezkuntzako ikasleak egunean 5 orduz egongo dira ikastetxean, eta jardun etena izango dute: goizean saio bat eta arratsaldean beste bat, eta eguerdian bazkaltzeko etenaldia.



## Ordutegia

Bigarren Hezkuntzako ikasleak egunean 6 orduz egongo dira ikastetxean. Saioak goizetan eta zenbait arratsaldetan izango dira. Ordutegi horretan atsedenaldia edo jolas garaia ere badute. Ordutegi hori luzeagoa izango da, ikaslea ikastetxeko jantokian gelditzen bada: eskola goizean hasten denetik, arratsaldean amaitzen den arte.

*Ordutegi orientagarria:*

	Haur eta lehen hezk.	Bigarren hezk.
Goizez	09:00 - 12:00	09:00 - 13:00
Arratsaldez	15:00 - 17:00	15:00 - 17:00

## Ikastetxe baten antolamendua. Oinarrizko hiztegia

**Zuzendaritza taldea:** Ikastetxea kudeatzeko ardura duten pertsonak osatzen dute.

**Irakasle klustroa:** Ikastetxeko irakasle guztiak osatzen dute. Ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuei buruzko erabakiak hartzen dituzte.



**Tutorea:** Ikasgela bateko ikasleen irakasle arduraduna da. Tutorea izan ohi da familiarekin harremanak izaten dituena eta bere ardurapean dagoen ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesuaren berri ematen duena.

**Guraso elkarte:** Ikastetxeko familiek osatzen dute. Zenbait jarduera antolatzen ditu: eskolaz kanpoko kirol eta kultura jarduerak, ikasleentzat; eta trebakuntza jarduerak, gurasoentzat. Elkarte horretan parte hartzea borondatezkoa da.



**Irakasle ez diren langileak:** Irakaskuntzaz kanpoko zerbitzuetan jarduten duten langileak dira: jantokia, atezaintza, garbiketza zerbitzua...

**Ordezkaritza organo gorena (OOG) edo eskola kontseilua:** Hezkuntza komunitatearen estamentu guztiak hartzen dute parte organo horretan: gurasoek, irakasleek, zuzendaritzak, ikasleek eta irakasle ez diren langileek. Organo horretan erabakitzen dira ikastetxearen funtzionamenduaren alderdi nagusiak.





## Bestelako informazioa

### Bekak

Irakaskuntza doakoa bada ere, testu liburuak, eskola materiala eta jantokia (erabiliz gero) ordaindu egin behar dira. Familiei gastu horiek ordaintzen laguntzeko, laguntza ekonomikoa emateko deialdi bat egiten da urtero: bekak.

Hauetarako laguntzak ematen dira:

Testuliburuetarako eta eskola materialerako



Jantokirako

Deialdia urrian izaten da. Beka horiei buruzko informazioa eta izapideak ikaslearen ikastetxean bertan izaten dira. Hala ere, ikasle etorkinak ikasturtea hasita dagoenean etortzen badira ikastetxera, geroago eskatu ahal izango dituzte bekak.

### Eskola jantokia

Ikastetxe gehienek ikastetxeak berak kudeatutako jantoki zerbitzua dute.

### Eskolaz kanpoko jarduerak

Jarduera horiek eskola jarduna amaitzen denean egiten dira. Jolas, kirol edo kultura jarduerak izaten dira, eta ikastetxeko guraso elkarteak antolatzen ditu. Gehienetan, kuota bat ordaintzen da eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeagatik



### Itzulpen zerbitzua

Ikastetxe bakoitzak eskatzen du, Herrialde bakoitzaren Hezkuntza Konpentsatzailearen Kontsorzioaren bidez.



### Helduen hezkuntza iraunkorra: EPA

Euskara eta gaztelania eskolak ematen dira, 18 urte baino gehiagoko etorkinentzat.

